

AGENDA @ Irrati-Telebista

ekografiak @ FERMIN ETXEGOIEIN

Euskalduna naiz eta 'arrago' nago

Ez dagokidan azterketa politikoaren eremu paduratsuan sartu nintzen atzoko zutabearen (tontamentian). Badakit eta barkatu, baina probokatu egin ninduen Joseba Arregiren agerraldiak (HRN izeneko saioan asteazken gauez).

Maddalen Iriarte kazetariak gidatu zuen mahainguruz «teknikoki» hitz egin nahi nuen atzokoan (besterik ez). Baina pasioak galdu egin ninduen (askotan bezala). Izan ere, horregatik egon zen normalean baino hobeto lehengo eguneko saioa (bururatzaren zait).

Euskaraz hain ondo mintzatuz tesi estatalistak defen-datuko dituenik aurkitzea ez baita erraza suertatu orain arte, tesi estatalisten eremu naturalean ez delako apenas egon euskara horrenbeste zaindu eta landu egin duen politikaririk, honelako pertsona publikoak abertzale izan ohi baitira (hamarretik hamaika).

Hizkuntza ikupegi batetik, beraz, zera esan dezagun: eskerrak Joseba Arregiri *bestaldera* pasatzeagatik!

Baina tira, ni Maddalenen programaz hitz egitera etorri natzaizue gaurkoan. Oso ongi aurkeztu zigun berak mahaingurua: egungo egoerari buruzko intro sendoa eskainiz ikusleoi zein gonbidatuei, nago, baita ondotik jokoan ongi banatuz haien artean ere (Xabier Barandiaran, Iñaki Antiguada, Kepa Aulestia eta Joseba Arregi).

Errealizazioa ohi baino hobeto joan zen: plano orokor-rrak espazio zabal-eder askoak erakutsi zizkigun (bai partaideen artekoa, baita haiengandik haratago zeuden espazio hutsaletan ere) eta norbaitek estudioa margotu zuen oso tonalitate dotoreetan, ikusi-makusi egiten diren horietarikoak.

Plano orokorraz gain, bestelako trikimailuak ere erabili zituen errealizatzaileak: hala nola, pantaila zatitu eta partaideen plano bereziak eskainiz. Pantailaren behekaldean bost partaideak ageri dira, adibidez, baina mintzatzen dagoena ere soilik ikusten ari gara goiko ezker aldean, baita beronen hitzok zuzenduta doazen bigarren partaide bat ere, isolaturik ageri zaiguna goiko eskumaldean (arragoa).

HEDABIDE ALTERNATIBOAK

Telebista egiteko beste modu bat

Hagako eraikin batean jarritako pantaila erraldoian bideoak emango dituzte uztailetik abendura

URTZI URKIZU

Hedabide konbentzionaletatik urrun, telebista libreak sortzen ari dira. Horietaiko bat Bilboko San Franzisko auzoan duela gutxi jaiotako Amatau TB da. Holandako Haga hirian, San Franzisko auzoaren antzeko beste auzo batean, proiektu berritzaile bat martxan jartzen dabil Iratxe Jaio (Markina, 1976). Euskal Herrian izan da bizkaitarra aste honetan, Op TV telebista libreen berri ematen.

Hagako Transvaalgo eraikin batean pantaila erraldoi bat jarriko dute, eta uztailearen 2tik abendura bitartean herritarrek hainbat bideo ikusi ahal izango dituzte. Hori da Op TVren abiapuntua. «Transvaal auzoa XX. mende hasieran sortu zuten, langileentzat. Gutxinaka etorkinak iritsi, eta egun bizilagunen lauitik hiru etorkinak dira. Auzoa degradatuta dago, eta Udalak 3.000 etxe botatzea erabaki du, «berriztatze».

Testuinguru zail horretan, OpTrek artista mugimendua sortu zen, eta bertako lagunek Op TVko programazioa sortzea eskatu ziguten Klas van Gorkumi eta bioi».



IRATXE JAIO Holandako Op TV telebista libreak kidea. MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

OpTrek mugimendua hainbat hausnarketa egin ditu azkeneko hilabeteetan, «Herbehereetan artista gisa kritikoa izateko jarriaren berriz planteatu behar baita». Guzti hori kontuan hartuta, Jaiok eta Van Gorkumek auzoko egoerarekin lotura duten hainbat film, dokumental eta bideo bildu dituzte. «Besteak beste, auzoko segurtasunari buruz egindako dokumental bat dugu, Amerikan 1950. urtean egindako do-

kumental propagandistiko bat, bertako artistek egindako bideoak eta bizilagunek egindako lanak. Telebista honen helburua auzoaren gaineko hausnarketa egitea da, baita gizarte komunitateen artean sortzen diren harremanak aztertzea ere».

Pantaila egongo den eraikina abenduan botako dute, eta, horrenbestez, orduan amaituko da Op TVren bidea. «Adibide hau beste leku batzuetan erabiltzea

IRATXE JAIO

(Op TV telebista libreak sortzailea)

«Telebistaren helburua auzoaz eta komunitateen arteko harremanez hausnartzea da»

«Op TVren adibidea beste leku batzuetan erabiltzea nahi genuke, eta egindako bideoak Hagatik kanpo emititzea»

nahi genuke, eta politika urbanistikoa gaineko hausnarketarako baliagarria izatea. Era berean, bildutako bideo eta lan guztiak Transvaal auzotik kanpo erabiltzea gustatuko litzaiguke».

Jaio eta Van Gorkum Euskal Herrira etorriko dira uztailean. «Bilboarteren bitartez, aktorekin telebista agertoki batzuk muntatuko ditugu Bilboko auzoetan».

@ laburrean

EUSKADI IRRATIA
Irratiak inoiz emandako sari handiena
'Tolosaldeko Hitzak'-ko langileek eraman dute

Garikoitz Udabek Euskadi Irratian gidatzen duen *Aperitifa* saioan sari handia pilatu da azkeneko asteetan, inork ez baitzuten asmatzen lehiaketako lau galderak. Baina ostegunean *Tolosaldeko Hitzak*-ko langileek lau galderak asmatu, eta Euskadi Irratiak inoiz eman duen sari handiena lortu zuten: 4.625 euro. «Hilabeteak dira denen artean lehiaketara deitzen hasi ginenetik, eta osteguneko ohi baino galdera errazagoak egokitu zitzaizkigun. Ibilaldiari buruzko galderak izan ziren guztiak», azaldu du *Tolosaldeko Hitzak*-ko langile batek.

TVE

'La primera noche'
ETB2ko saioaren bertsio berriari izena aldatu diote azkenean

3Koma euskal ekoiztetxeak duela bost urte egindako *La primera noche* saioaren plagioa egitekotan zirela esan zuen joan den astean. ZZJ ekoiztetxe andaluziarrak TVE1erako prestatutako programa berri batek formatu bera eta izen bera du. Gaur estreinatuko dute saio hori (22:30), baina izena aldatu egin diote. *Gente de primera* izena du «familia osoarrentzako» musika lehiaketak.

ETB2

Beste western ziklo bat hasiko da astelehenean

ETB2 kateak western ezagunak emango ditu arratsaldero (18:00 aldera) astelehenean aurrera, *Cine Western* izenburupean. Film gehienak aurretik emititu ditu gaztelaniazko kateak. Iazko udazkenean, western zikloak %23ko batez besteko audientzia izan zuen.

'Hitzetik hortzera'-ren agurra

Bihar amaituko da ETB1eko bertolaritza saioaren denboraldia (14:40)

ERREDAKZIOA - DONOSTIA

Astigaragan hamar bertsolari gazterekin egindako bertso-bazkariarekin esango dio agur ETB1eko *Hitzetik hortzera* saioak denboraldiari, bihar, 14:40ean. Maiatzaren 14an egin zuten bertso-bazkari hori Iri-

goien-Herrero sagardotegian, eta bertan bota zituzten bertso onenak entzuteko aukera izango da biharko emanaldian. Gai-jarritzaile lanetan programako aurkezle Josu Goikoetxea aritu zen. Bertsolariak honako hauek izan ziren: Jokin Uranga, Arkaitz Estiballes, Amaia Agirre, Julen Ze-

laieta, Xabier Paia, Nahikari Gabilondo, Mantxi, Oihane Perea, Ekaitz Goikoetxea eta Estitxu Eizagirre.

Udako atsedendiaren ostean, udazkenean itzuliko da, ohi bezala, *Hitzetik hortzera* bertsolarietza saioa ETB1eko programaziora.



Josu Goikoetxea saioko aurkezlea. ETB